

BURUKETAK EBAZTEKO HIZKUNTZA-BALIABIDEAK



HIZKUNTZA ARLOA
Lehen Hezkuntzako 2. maila

Juan José Gascón
2011ko ekainean berrikusia

BURUKETAK EBAZTEKO HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barnean: Matematika eta Hizkuntza

Gaia: Buruketa-testuen ulermena eta adierazpena

Maila: LHko 2. maila

Saio kopurua: 8

Proposamenaren testuingurua: Askotan, buruketak matematika esparruari soilik dagozkion ataza gisa ulertu izan dira. Alabaina, matematikakoak baino gehiago hizkuntzakoak dira garatu behar diren trebetasunak: nagusiki, ulermen-estrategiak landu behar diren neurrian edota buruketa bat ebazteko urratsak ahoz adieraztean sortzen diren zailtasunak agerian geratzen diren neurrian. Sekuentzia didaktiko honek ikasleek egoera problematikoen aurrean ulermen-estrategiak eta adierazpenerako zenbait baliabide aplikatzea du helburu.

Oinarrizko gaitasun hauek landuko dira:

- ✓ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna (1.,3.,4.,5.eta 6. jarduerak)
- ✓ Matematikarako gaitasuna (1.,2.,3.eta 6. jarduerak)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (3.eta 6. jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna (6. jarduera)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Buruketak ebazteko hizkuntzari lotutako ulermen-estrategia eraginkorrak aplikatzea.
- ✓ Buruketaren testua ebatzi beharreko egoera problematikotzat hartzea.
- ✓ Buruketaren kontakizuna hurbileko egoera erreal batean antzematea.
- ✓ Buruketak ebazteko emandako urratsak ahoz adieraztea.
- ✓ Egoera problematiko bati buruzko buruketa-testua idaztea.

Edukiak:

- ✓ Hizkuntzari lotutako ulermen-estrategia eraginkorrak.
- ✓ Buruketa-testua egoera problematikoak ebazteko .
- ✓ Buruketak eta eguneroko bizimodua.
- ✓ Buruketak ebazteko urratsak.
- ✓ Egoera problematiko bati buruzko buruketa-testua.

Jardueren sekuentzia:

- a) Planifikatzea
 1. Egoera problematikoa sortzen zait.
- b) Gauzatzea
 2. Buruketa egoera erreal batean antzematen dut.
 3. Zer urrats eman behar dut ebazteko?

4. Konparazioak egin eta adierazten ditut.

c) Erabiltzea

5. Iritzia ematen dut ikaskideen aurrean, arrazoiak emanez.

6. Egoera problematiko bat planteatzen dut, besteek ebatz dezaten.

Ebaluazio-irizpideak:

Adierazleak:

1. Ea buruketak ebazteko hizkuntzari lotutako ulermen-estrategia eraginkorrak aplikatzen dituen.
2. Ea buruketaren testua ebatzi beharreko egoera problematikotzat hartzen duen.
3. Ea buruketaren gaia egoera hurbil eta erreal batean antzematen duen.
4. Ea buruketak ebazteko urratsak ahoz adierazten dituen.
5. Ea azalpenean konparazioa adierazteko egiturak erabiltzen dituen.
6. Ea ustea edo iritzia egoki adierazten duen.
7. Ea egoera problematiko bati buruzko buruketa-testua idazten duen.

Tresnak:

- ✓ Sekuentzian hauexek proposatzen dira:
 - Kontrol zerrenda (6. jardueran, 4. adierazlea).
- ✓ Irakasleak erabiliko dituen beste batzuk (behaketa...).

BURUKETAK EBAZTEKO HIZKUNTZA-BALIABIDEAK

1. JARDUERA. Egoera problematikoak sortzen zait.

Etxeko zereginak norik egiten dituen jakiteko datuak bilduko dituzu (ikus 1. irudia), eta gero diagrama kartesiarrean (ikus 2. irudia) adieraziko ditugu.. Alabaina, guztiek berdin parte hartzen dute etxeko zereginetan?

1. irudia

ETXEKO ZEREGINAK



	MAHAIA ATONDU	BAZKARIA, AFARIA PRESTATU	HARRIKOA EGIN	ARROPA GARBITU	HAUTSA KENDU	KOMUNA GARBITU	LISATU	OHEA EGIN	LOGELA TXUKUNDU	ZABORRA ATERA
AITAK EGITEN DU										
AMAK EGITEN DU										
NIK EGITEN DUT										
BESTE BATEK EGITEN DU										

2. irudia



2. JARDUERA. Buruketa egoera erreal batean antzematen dut.

Bildutako datuen arabera, nortzuek egiten dituzte zeregin gehien?
Eta nortzuek gutxien? (ikus 3. irudia).

3. irudia

ATAK EGITEN DU	JONE, ASIER, NERE, JUAN	ANDER, IMANOL, MARIA, UNAL, SARA	IKER, AMETSA, ARGI, OLATZ, KOLDO	TIGABU, IRAITZ, MARTA, ANE, HAIZEA	GUZTIRA
MAHAIA ATONDU	4	5	3	4	16
BAZKARIA, AFARIA PRESTATU HARRIKOA EGIN					
ARROPA GARBITU					
HAUTSA KENDU					
KOMUNA GARBITU LISATU					
OHEA EGIN					
LOGELA TXUKUNDU					
ZABORRA ATERA					

AMAK EGITEN DU	JONE, ASIER, NERE, JUAN	ANDER, IMANOL, MARIA, UNAL, SARA	IKER, AMETSA, ARGI, OLATZ, KOLDO	TIGABU, IRAITZ, MARTA, ANE, HAIZEA	GUZTIRA
MAHAIA ATONDU					
BAZKARIA, AFARIA PRESTATU HARRIKOA EGIN					
ARROPA GARBITU					
HAUTSA KENDU					
KOMUNA GARBITU LISATU					
OHEA EGIN					
LOGELA TXUKUNDU					
ZABORRA ATERA					

NIK EGITEN DUT	JONE, ASIER, NERE, JUAN	ANDER, IMANOL, MARIA, UNAL, SARA	IKER, AMETSA, ARGI, OLATZ, KOLDO	TIGABU, IRAITZ, MARTA, ANE, HAIZEA	GUZTIRA
MAHAIA ATONDU					
BAZKARIA, AFARIA PRESTATU HARRIKOA EGIN					
ARROPA GARBITU					
HAUTSA KENDU					
KOMUNA GARBITU LISATU					
OHEA EGIN					
LOGELA TXUKUNDU					
ZABORRA ATERA					

BESTE BATEK EGITEN DU	JONE, ASIER, NERE, JUAN	ANDER, IMANOL, MARIA, UNAL, SARA	IKER, AMETSA, ARGI, OLATZ, KOLDO	TIGABU, IRAITZ, MARTA, ANE, HAIZEA	GUZTIRA
MAHAIA ATONDU					
BAZKARIA, AFARIA PRESTATU HARRIKOA EGIN					
ARROPA GARBITU					
HAUTSA KENDU					
KOMUNA GARBITU LISATU					
OHEA EGIN					
LOGELA TXUKUNDU					
ZABORRA ATERA					

3. JARDUERA. Zer urrats eman behar dut ebazteko?

Lehenengo eta behin, aukeratu zeregin mota bat, eta aztertu kolore bakoitzari dagokion taulan zenbatekoa den kopuru osoa.

Zeregina: _____

Bigarrenik, konparatu kopuru hauek:

Aitak egiten du	Amak egiten du	Nik egiten dut	Beste batek egite du

- Kopuruak berdinak al dira? _____
- Zein da handiena? _____
- Zein txikiena? _____
- Ordenatu kopuruak handienetik txikienera: _____

Hirugarrenik, adierazi zeregin mota horretan nortzuek parte hartzen duten gehien eta nortzuek gutxien; kopurua ere zehaztu:

- Gehien parte hartzen dute:
 - aitek
 - amek
 - guk
 - beste batzuek
- Gutxien parte hartzen dute:
 - aitek
 - amek
 - guk
 - beste batzuek

Laugarrenik, bilatu diagrama kartesiarrean adierazitako datuak. Aztertu bi marra hauek: gutxien parte hartzen dutenen kopuruari dagokiona eta gehien parte hartzen dutenen kopuruari dagokiona. Zenbatekoa da bi marren arteko aldea?

Zenbat falta zaio marra txikienari handienera iristeko?

_____ falta zaizkio.

Bosgarrenik, osatu eta erantzun honako galdera hauei:

_____ zereginean parte hartzen dutenen artean,

zenbat _____ dira gehiago _____ baino?

4. JARDUERA. Konparazioak egin eta adierazten ditut.

Aurreko jardueran aukeratutako parte-hartzaileen kopuruak erabiliz, adierazi ondorioa honako eredu hauetako bati jarraituz:

❖ _____ gehiago dira _____ baino
_____ zereginean.

❖ _____ gutxiago dira _____ baino
_____ zereginean.

5. JARDUERA. Iritzia ematen dut ikaskideen aurrean, arrazoiak emanez.

Zuk zer uste duzu? Guztiek berdin parte hartzen dute etxeko zereginetan?

Hori arrazoitzeko zeregin egokia aukeratu, eta zure ustea adierazi, dagokion ereduari jarraituz:

A. Nire ustez, berdin parte hartzen dute guztiek,

_____ zereginean ikusten den bezala.

B. Nire ustez, guztiek ez dute berdin parte hartzen,

_____ zereginean ikusten den bezala.

_____ (gehiago/gutxiago) dira _____ baino.
(ama/aita/gu/beste batzuk) (ama/aita/gu/beste batzuk)

C. Izan ere, _____ (gehiago/gutxiago) dira.
(kopurua)

6. JARDUERA. Egoera problematiko bat planteatzen dut, besteek ebatz dezaten.

Orain zure txanda da. Planteatu egoera problematiko bat gelakideek ebatz dezaten, etxeko zereginei buruz dauden datuak kontuan harturik. Gogoratu aurreko jardueran emandako urrats guztiak.

Lehenengo eta behin, aukeratu zeregin mota bat, eta aztertu kolore bakoitzari dagokion taulan zenbatekoa den kopuru osoa.

Zeregina: _____

Aitak egiten du	Amak egiten du	Nik egiten dut	Beste batek egiten du

Bigarrenik, konparatu kopuru hauek:

- Kopuruak berdinak al dira? _____
- Zein da handiena? _____
- Zein txikiena? _____
- Ordenatu kopuruak handienetik txikienera:

Hirugarrenik, adierazi zeregin mota horretan nortzuek parte hartzen duten gehien eta nortzuek gutxien ; kopurua ere zehaztu :

- Gehien parte hartzen dute:
 - aitek
 - amek
 - guk
 - beste batzuek

- Gutxien parte hartzen dute:
 - aitek
 - amek
 - guk
 - beste batzuek

Laugarrenik, bilatu diagrama kartesiarrean adierazitako datuak. Aztertu bi marra hauek: gutxien parte hartzen dutenen kopuruari dagokiona eta gehien parte hartzen dutenen kopuruari dagokiona. Zenbatekoa da bi marren arteko aldea?

Zenbat falta zaio marra txikienari marra handienera iristeko?

_____ falta zaizkio.

Bosgarrenik, asmatu dagokion galdera egokia aurreko jarduerak eskainitako ereduari jarraituz, eta gelakide bati eman erantzun dezan:

_____ zereginean parte hartzen dutenen artean,

zenbat _____ dira gehiago _____ baino?


Amaitzeko, 4. eta 5. jardueretan proposatutako eredu egokiak erabiliz, eskatu zure gelakideari arrazoitutako iritzia aztertutako zereginaren gainean:

Guztiak berdin parte hartzen dute _____

zereginean?

Azkenik, alderatu zure datuekin gelakidearen erantzuna, ea bat datorren eta zuzena den eta ondo arrazoituta dagoen.

Zuzena ez bada, azaldu gelakideari zergatik ez dagoen ondo zure ustez; eta, zuzena bada, zorionak eman.



Horretarako, erabili honako kontrol-zerrenda:

	BAI	EZ
Datu egokiak aukeratu ditu, diagraman aukeratutako zereginaren arabera.		
Kopuru handiena eta txikiena ondo identifikatu ditu.		
Kopuru bati bestea bezain handia izateko zenbat falta zaion ondo kalkulatu du.		
Egindako galderari ondo erantzun dio.		
Konparazioa zuzen adierazi du.		
Arrazoi egokiak azaldu ditu iritzia ematean.		
Arrazoiak zuzen adierazi ditu.		